

# Egungo Euskararen Hiztegia



[bertsioa: 2011-06-28]

**ñabar** *izond adkor* nabarra. Perkalezko soineko **ñabar** batez jantziriko emakume lodi adineko bat. Haien begradak, haien aurpegiak, haien traje dotore, **ñabar** eta koloredunak. Objektu **ñabar** eta iletsu bat hurbildu zitzaion, zalantzati. Halakoa izaten da erien bistan ageri diren haluzinazio **ñabar** eta engainagarrien kasua.

**ñabararazi**, **ñabararaz**, **ñabararazten** du *ad* **ñabartzera** behartu. Baina so egiozue zuhaitz-hosto bati, ikusi haren zain apatatsuak, itzalak eta eguzkiak **ñabararaziriko** tonuak.

**ñabardura** (529 agerraldi, 94 liburu eta 171 artikulutan; orobat **nabardura** 16 agerraldi, 9 liburu eta 4 artikulutan) **1** iz aski antzekoak diren bi gauzaren artean dagoen alde txikia. Gauzak ez dira zuri edo beltz, baizik eta hainbat **ñabardura** dituzte, eta hainbat aukera daude. -Ez dut zirraren **ñabardura** bakoitzarentzat hitz bat, zuk bezala. Turkesatik zafirorainoko urdinaren **ñabardura** guztiak dauzka zeruak, eta badiak berdearen **ñabardura** guztiak, esmeraldatik krisoprasaraino. Ez du gizonen arteko maitasuna eta emakumeen artekoa bereizten, ez du **ñabardura** hori jasotzen. Akordioaren agiriaren atzealdean jarritako baldintzei eta **ñabardurei** ETak ez zela erantzun. Datuek **ñabardurak** behar dituztela, alegia. Guk ezin adieraz ditzakegun **ñabardurak**. Akustikoki axolarik ez duten **ñabardurak** alboratuz gero. **ñabardura** batzuekin, hori bai, baina azken batean biak bat funtsean. Ez gintuan hamabietan etxeratuko, baina **ñabardura** horretaz aparte, dena pentsatu bezala gertatzen ari zuan. Gardenago oroitzen ditut **ñabardura** batzuk beste batzuk baino; horrek erakusten dit traidorea eta baztertzaila dela oroimena. Hamabiren bat **ñabardura** izango zituen artista baten gris sorta bat erakutsi ziotenean. **ñabardura** askoko puzzlea. **ñabardurekin**, baina itxaropena azken batean. Bushen politikari segituko diola, **ñabardurak** **ñabardura**.

**2** (*izenondoekin*) Bere sodio-lanparen argiarekin parekatu zuen, berehala ezkutarazten baititu kolorea eta **ñabardura** xumeak. **ñabardura** txiki hark irauli zuen etorkizuna. Kolorearen **ñabardura** txikiena ere bazekien irakurtzen itsaso haren azalean. Fatxadaren estilo arkitektonikoaren **ñabardura** txikienak ere patxadaz aztertu zituen. Pixkanaka-pixkanaka *Mars Expressen* datuak **ñabardura** handiko topografia erakusten ari dira. Honezkeru bada egin beharreko **ñabardura** garrantzitsu bat: [...]. **ñabardura** hutsa ez da, ordea. Baina **ñabardura** funtsezko batekin. Zeruaren eta itsasoaren arteko kolore-apustu eta **ñabardura** gris-urdin amaigabean tirabira lausoan. Egunsentiak gela barrera **ñabardura** urdinez margotu zuen. Lehorrean, berriz, zelai berdeak, eta berdetasunaren artean bitxilore eta txikoria-belarren **ñabardura** koloretsuak. Biziazen aniztasun zabalaren **ñabardura** infinituetan. Iragana ahalik oneskien duplika dezagun, tradizioari den mendreneko **ñabardura** erorik ekarri gabe.

**3** (*hitz elkartuetan lehen osagai gisa*) Grisaren eskalako **ñabardura**-balioen arabera. Jakizu, bada, horrelaxe dela eta, izan ere, badirela hautematen dutenen artean **ñabardura**-maila ugari nagusitasunean. Kolorearen eta **ñabardura**-kontrastearen galeraren kontua ematen zuen, eta ez hainbeste ezagumeneko akatsa. Aroa bera **ñabardura** multzo baten arteko oreka orekatu malguta den gisa berean, [...]. Forma- eta **ñabardura**-aldaketa etengabea.

**4** (*hitz elkartuetan bigarren osagai gisa*) Ahots-**ñabardura** hark, apur bat harritu baninduen ere, halako atsegin ezkutu bat piztu zuen neure baitan. Ile horia, begi urdin argiak, jaka gorria, jantziaren lepoa urdin-berdea, eta haragiaren kolore-**ñabardura** natural harrigarriak. Ez ziren gauza izan kolore-**ñabarduren** esanahiaz jabetzeko. Gaia puzzle bat da eta puzzle horretan zeruak urdin **ñabardura** asko dauzka. Garbi dago ebakera **ñabardura** hori zehaztasunez heldu dela idazkeraren laguntzarik gabe.

**5** **ñabardura egin** ik **ñabartu 2**. Prest zeuden asteazkeneko bileran Unespa aseguru etxeen patronalak mahaigaineratutako eskaintza onartzeko, betiere hiru **ñabardura eginda**. Horien harira zenbait **ñabardura egin** nahi izan zituen Irlandako bake prozesuaz eta Euskal Herrian izan dezakeen isiaz. Idazleen kontuari berriro helduz, abertzalea eta nazionalistaren arteko **ñabardura egiteko** beharra sumatu diot bati baino gehiagori. Legeari hainbat **ñabardura egin** zizkion, Espainiako Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko kide zela, 2002an.

[3]\*\*

**ñabarduratsu** *izond* **ñabarduraz** betea. **ñabardurak** eta iradokizunak zentsurapean jartzen dituen hori berori da, izan ere, berari dagokion auzi batean, iradokizun egilerik **ñabarduratsuen** eta setatienea.

**ñabarduratxo** *iz* Eta **ñabarduratxo** honekin gainera: Oñati aldean, "yaka" ez baina, "fraka" esaten zutela. Hara hor ba, uztaileko maparen **ñabarduratxoak**. Nolanahi ere, **ñabarduratxoa** hor dago seinalatuta.

**ñabardurazale** *izond* **ñabarduren** zalea dena. Ez zen **ñabardurazalea**, baina haien dohaina miresgarria zitzaion, eta itxuraz maltzurkeriarik gabeko baina funtsean hain inozenteak ez ziren errima xume haletarik batzuen mamia ulertu nahiko zukeen.

**ñabartasun** *iz* **ñabarra** denaren nolakotasuna. Hitz-lau arruntetik neurtitz bereziraingoko gradu guztiak aurki baitaitezke obran, **ñabartasun** hori ere nolabait gordetzen ahalegindu gara.

**ñabartu**, **ñabar**, **ñabartzen** **1** da/du *ad* **ñabar** bihurtu. Koadro bat guztiz **ñabartu** zen zeruko koloreez. Auto zelular bigarren lerroan aparkatuetako argiek ñir-ñir urdinkarez **ñabartzen** zuten arratsaren ilun ahula. Aza gorriak, goizargiak kolorea aldatu eta beren loratzearen ardo kolore aparta erakusten zutenak, hainbat zauri gorrirain eta purpura ilunez **ñabarturik**. Haren adimena itsutzen zuten hodei gorri-beltzen aldean, laino zuri mehe batek **ñabartzen** baizik ez zuten nirean. Paulek irrifarre eztienea agertu zuten, oroitzapenen beloak gordea, ametsek **ñabartua**.

• **2** du *ad* **ñabardura egin**, zehaztu, argitu. -Telebisiolan ere esango ditek gaur, notiziarioan, kontu inportantea bada -**ñabartu** zuen besteak. Euskadiko Filmategia Tabako Fabrika barruan kokatzeko «erabaki formala» hartu gabe dagoela **ñabartu** zuen Azkaratek. Zalduak **ñabartu** nahi izan du ez duela uste ezer legez kanpikorik egin denik, baina egin diren gauza batzuk «printzipio etiko ez beti garbietan oinarrituta» egin direla. Posibilitate onartutako hori oso ondo adosten da *De Architectura*-n zehar azaltzen diren eta preskripzioen norainoko unibertsala **ñabartzen** duten kutsu erlatibistako baieztapen ugariekin. Gauza zuhurra dela dirudi, beraz, marrazkiak galdu ez balira beste Vitruvio desberdin eta "argi" bat izango genukeela esaten duen delako ideia tradizional hori **ñabartzen** sailatzea gutxienez.

• **3** (*era burutua izenondo gisa*) Larruazala berde argia eta **ñabartua** zuen, eta garbi zegoen ahal zuen indar guztiaz negarrez ari zela. Eman duen erantzuna, oso **ñabartua** izanagatik, ez da ezezkorra izan. Horrek ez du kentzen planteamendu horren baitan, formulazio **ñabartuak** eta adostuak izatea tokian tokiko aplikazioari dagokionean.

**ñak**

**1 ñak-ñak-ñak** murtxikatzaren onomatopeia. Dena da laua hemen, dena behar da idatzi, metaforizatu, letren iragazitik igaroarazi, odollik irtengo ez den arren murtxikatu **ñak ñak ñak**.

**ñaka 1** iz ñakua. Falta zuen Lafittek bertzorduko **ñaka** hura, eta Martiarenak betiko joko abil hura, baina hain ziren xixtatuak Inchauspe horrekin!

**ñaka-ñaka 1 adlag** irenstearen onomatopeia. ik **naka-naka**. Gosez hamikatu kabala meharrek emaitza nasaia **ñaka-ñaka** irentsi zuten; laster, auhentxo ahulak baizik ez ziren aditu.

**2 ñaka-ñakan adlag** ñaka-ñaka Hasierako plana zen ezen, gelakoak goren puntutik gertu zeudela, ustekabean ni aterako nintzela armarituk, **ñaka-ñakan** aritzeko gogoz lehertzen.

**ñakaka adlag** Ez da nehor hemen xanpaka eta **ñakaka** ari.

**ñakako** iz ñakua. Orduan Rene Dermit, arras balios, lotu da gogotik, Reteguik ere **ñakako** batzu egiten zituela eta sarea zaintzen.

**ñaku** iz pilota jokaldi mota bat. Bi paretak, gantxoak, **ñakuak**; guztira 14 tanto erdietsi zituen Tricioko maisuak.

**ñame** iz tropiko arteko lurraldeetako belar-landarea, batataren antzeko tuberkuloak ematen dituen (*Dioscorea batatas*). -Mrs.\_Merivale, urteak dira hain patata gozorik jaten ez nuela.\_**Name**-zaporea dute.

**ñandu** iz Hego Amerikako zabaldietako hegazti lasterkaria, ostrukaren antzekoa, lumadi griskarokoa, hiru behatzeko oinak dituen (*Rhea americana*). Ilargi-gaua zen; buelta bat ematera irten, eta han topatu nuen, **ñandu** bat begira zeukala.

**ñañar 1 izond** txikia eta kaskarra. (*personez*) **ñañarra** zen eta hankak ere izugarri tikiak zituen, botoitxo askoko bota txiki beltzak jantzita. Baziren gure inguruan festa-hondatzaille **ñañar** batzuk, besoak zerura luzatuz lurrera belauniko erortzen ziren bitartean harengatik zigortuko gintuztela esaten zutenak. Inolako arretarik jarri gabe begiratu nion Lisettari Croceren liburuak uzten zizkion konde **ñañar** hari. Hi behintzat ez haiz **ñañar** koipetsu ile beltz kizkurdu horietakoa, gauero ileari *bay-rum* ematen diona gainera.

**2 (gauzez)** Muga maleta txiki baten barnean pasatu zuela kontatzen dio edonori, eta baliteke egia izatea, askoz gehiago ez baitu betetzen bere gorputz **ñañarrak** oraindik ere. Liburuko irakasle alu hori ez zen zehatz-mehatz nik ezagututako inor, baina, bai itxura **ñañarrean** bai izaera zitalean, txikitako irakasle jakin bat izan nuen inspirazio-iturri, Txanpi ezizeneko kakanarru alu bat, Periko ez bezala egiazki gorrotatzera iritsi nintzena.

**ñañarro izond** ñañarra. "Gameboyko **ñañarro** horren kлона ematen din", egin du neskek bere kolkorako.

**ñaño izond adkor 1** nanoa. Artzain ergel **ñaño** bat han zen lo kuluxka. Zeharo gogaiturik, egongelatik irten eta nola hala ematen nuen denbora: batzuetan karrajutik paseoan, nesken geletako poster horterak aztertuz; beste batzuetan neure hankaz irekitako balkoian, alboko txakur **ñañoarekin** eztabaidan. Zer dauka kalboso koipetsu eta **ñaño** horrek nik ez daukadana? Orduan behintzat kursiak iruditu zitzaizkidan erabat, erromantizismo melenga, belaska eta **ñaño** batez eginak. Vaudeville itxurako filmean, yogi **ñaño** bat jipoitzen dute Quebec-en whisky truk. Ondo asko dakigu esperantza, letra handi eta larritz idatzita ere, hitz pobrea dela, **ñaño** samarra akaso.

• **2 (izen gisa)** Potoloa koipezto hutsa da: **ñañoak** badauka grazia, baina oso itsusia da, eta kankailu ixila. Baina orduan beste izaera bat behar zuen, eta ez guk jarri diogun **ñaño** antzeko hura. Ispilu ilunean, alabaina, nire irudiaren isla baizik ez zen, **ñaño**, ttar eta zimurduretan kizkurtua. Giroa horrela berotu ondoren, esertzera joan da **ñañoa**. Eta janzkera dotore, eta printzesa maitemindu, eta ezkutari konde, eta **ñaño** barregarri. Unai Iturriagak eta Fedi Paiak saio polita eskeini zuten, batto Edurne zuriarekin maitemindua zen **ñañoaren** rolan, sagar pozoindua jan eta lo zela, Fredi printze urdinarekin ukan elkarrizketan.

**ñañokeria** iz Igande arratsalde batean Aloñaren lantokiko lagunak etorri zitzaizkigun etxera bisitan, emakumezko lankideak zehatzago esanda, Aloña eta umea ikustera eta halakoetan esaten diren **ñañokeriak** esatera. Gainera, igual **ñañokeri** bat irudituko zaizu hola esanda baiño, jendea barrutik ere ezautzen duzu.

**ñañotu**, ñaño(tu), ñañotzen dadu *ad* ñaño bihurtu. **Nañoturiko** izarzak aitzakia beti besteri botatzeko joera izaten du, neroni buru naizela.

**ñapur 1 izond** gozozalea, ahozuria. ik **napur**. Igandean ere, mokoxuri **ñapurrek** hartzen ahalko dute beren plazerra.

• **2 (adizlagun gisa) irud/hed** Manifestalditik landa haatik, Robert Villenave biziki **ñapurrago** mintzatu da: auzotarren beharrak ezagutzeko inkesta bat hitz eman dio postak, berak iragarri dituelarik bide seinaleak auzoguneko jendeak posta horretara errazki bidatzeko.

**3 (ardiez eta kidekoez mintzatuz)** Bainan, jaun hori bertzen eremuetan sartzen baita ardi **ñapurra** bezala iduri luke manatua izan zaiela bertze ministroei agert diten haiek ere telebixtetan. Hor gaindi nenbillela, beti iruditzen zitzaidan, handik edo hemendik, onddoak agertuko zitzaizkidala, eta bestalde, ardi **ñapurren** irudi, elorri-ondo eta sasien erditik pasatzeak, halako libertate baten itxura eskaintzen zidan. Are laster gehiago egiten genuen orduan, gure ardi **ñapur** kankaila gosetien handik jalgitzeko, alorren jabeak ohartu baino lehen. Azienda **ñapurren** marrakak.

**ñapurkeria** iz litxarrerria. Badakite laster hurbilduko dela beren etxetik Jexux Haurra edo Olentzero, bat ala bertzea, jostailuz eta **ñapurkeriz** gaingitua. Eta berrikitan ikasi dudana hitza, gormandiza delakoaren orde, **ñapurkeria**, arras gustukoa zait.

**ñapurki adlag** litxarreriaz. Hainbat **ñapurki** lotu zaizkio Pariseri non Patrick Devedjian barne ministro ordeak erran baitu: "Frantziaren departamendua erakunde indartsuena da estatuaren ondotik".

**ñapurtar iz.** Etxahun Barkoxek, Axularrek edota Etxepare mirikuak bezala, andereñoek, txoriñoek, zure begi ñirñirrek, Baionako barraraino laño dauden itsasoek eta gainerako **ñapurtarrek** ez zuten España kañi hau merezi.

**ñarñarkari izond** Harri nabarra, adreilu gorria, erroto luze gorri eta berdeekiko asfalto **ñarñarkaria**, estolda gainerako paper-puskak; guztia haren inguruan biraka zebilen, emeki-emeki, lainoan murgilduta.

**ñarro 1 izond** tamaina txikikoa. Gure lagun **ñarroaren** seriotasunetik eta ikasteko zaletasunetik zer bait kutsatuko zitzaioleko mentura zuen, nonbait. Agenda ttar bat, mukizapia, ezpainetako barra eta kartera tiki baina itxuraz bete atera zituen, hurrenez hurren, larrazko zaku **ñarro**tik. Kriseiluko argi dardaratiak errainu **ñarroak** sortu zituen haren begietan. Begi **ñarro** horiek halako bi egin ziren.

• **2 (izen gisa)** Zer zela eta jarri nion halako ezizen hanpatua lurretik bi habzete ere altxatuko ez zen **ñarro** bati?

**ñarroto, ñarro(tu), ñarrotzen 1 da/du ad** begiez mintzatuz, erdi itxi. -Nor da? -esan zuen gizonak, ilunpetan begiak **ñarrotzen** zituela. -Zer gertatzen da? -esan nion, begiak **ñarrotoz**. Begiak **ñarroto** nituen, gehiago bistatu nahirik. Apurka, begiak **ñarrotoz**, ohitu naiz. **Ñarroto** du ezkerreko begia, betazalak bilduz. • Beste batzuek betazalak **ñarroto** dituzte eta irri egiteko gogo izugarriari eusten diotela dirudi.

• **2 (era burutua izenondo gisa)** Orduan, botila-koloreko bi begi berde **ñarroto** topatu nituen bekain keinukari baten azpitik niri begira.

**ñegartti izond** adkor negartia. Han entzuten da txantxangorriaren kanta **ñegartti** ezaguna.

**ñimiño (orobat nimino g.er. eta nimiño g.er.) 1 izond** adkor oso txikia; txikitxo. Judu **ñimiño** iharra zen, lasto koloreko ahuntz-bizarra zuena. Bidegabe handia izango litzateke Leibusch **ñimiño** hura gaiztagin arrunten artean kokatzea. Carson Cityko etxe **ñimiñoak** ageri ziren hegazkineko leihatilatik. Etxearen neurriko sala **ñimiñoa** zen. Bazter batean, jostailuzkoak ziruditen beste hiru hilobi **ñimiño** ere ageri ziren lerroan. Abilki pasatu zen zomorrotegi baten gisako mundu **ñimiño** haren artekin. Cerdanyako erregeordeak (-...) amets bereziki latza izan du: izurriak jota ikusi du bere burua, gaitzaren mende bere estatu **ñimiñoa** ere. Gona estu **ñimiñoa** janzen zuen, lehengo eguneko plisatuaren orde. Soineko azpiko tanga **ñimiñoak** markatzen dizkion ipurmasailto irtenak doi dantzatuz. Berak ere begiratu zidan, hasieran iheskor, gero arreata handiagoz, begitxo **ñimiño**, bizi eta argitsuekin. Agurearen begi urdin **ñimiñoetan** ageri zen distira jostalariak ezin urduriago jartzen ninduen. Gutunazalaren zuria urratzen zuten letra **ñimiñoek** oso tankera bihurria zuten. Hodi **ñimiño** batzuk dira osteonak, 15 mm luze eta 0,25 mm zabal diametroan. Sentsore **ñimiño** hori oso erabilgarria izango da medikuntzarako. Bere eskuko poltsatik ispilu **ñimiñoa** eta ezpainetako lapitza atera zituen. Doi doia ageri da ezker aldera gomitatzen nauen gezi **ñimiñoa**. Molekula batzuek dipolo elektriko bat daramate beren baitan, hots, ipar orratz **ñimiñoak** bezala jokatzeko dute eremu elektriko batean. Arrantzale etxe andana, portu **ñimiño-ñimiñoa**.

**2 (gauza abstraktuez)** Irribarre **ñimiño** batekin erantzun dio emakumearen irribarre zabalari. Urteetan zehar oroitzen **ñimiñoenak** apuntatzen ibili behar izan nian koadernotxoetan, gero ez ahazteko. Xehetasunik **ñimiñoenak** gogoan edukitzea. Begiak bizi-bizi, bestearen xehetasunik **ñimiñoenei** ere erreparatuz. Zoritxarrez, dagoeneko inork ez du zalantzarik **ñimiñoena** ere horretaz. Argi izpia sartu zelarik sortu zen esperantza **ñimiñoa** berehala suntsitu zen eta zein gordinki. Eta lehen aldiz orain, gaitzespen **ñimiño** batekin pentsatzen nuen haietaz, maitasunezko inkurzioz nolabait. Arrasto eta aztarna guztiei adi zebilen beti, egokierarik **ñimiñoena** ere alferrik galdu gabe. Neska gaztea lasai geratu zen bere tokian, musuan aztoramenik ageri ez zuela, zurbiltasun **ñimiño** bat izan ezik. Huts **ñimiñoena** ez zen barkatzen.

**ñimiñodun izlag** ñimiñoako. Pergaminozkoak ziren, edota antzeko larretzek egindakoak, eta haietako bakoitzak Senaren eskuin-ibaizteraren ikuspegi ageri zuen margotuta, leiho **ñimiñodun** eraikin eta guzti.

**ñimiñokeria iz** huskeria. Carbayok aztertzen ninduen, isilik, esaten uzten zidan, partez asperturik bailegoen, partez nire **ñimiñokeriak**, nire xebebrekeriak libretituko bailuen.

**ñimiñotu, ñimiño(tu), ñimiñotzen da/du ad** ñimiño edo ñimiñoago bihurtu. Funtzionario hark hain zuen bizar duina, hain luzea, hain zilarrezkoa, non aurpegia ondorioz **ñimiñotu**, ez ezatatu egiten zitzaion, bizarra aurpegitik hazi beharrean aurpegia bizarretik sortzen balitzaio bezala. Kanutoak begiak ixteraino **ñimiñotu** zizkion.

**ñiñi iz ipar** adkor ninia, haur txikia. Haifan 19 hil egin ditu atentadu batek, israeldarrak, heien artean lau haur eta **ñiñi** bat. Goresmenak ameri eta aiteri eta **ñiñi** ttipi horiek handi ditzela osagarri onean eta bizi uros bat goza. Goresmen beroenak aitameri eta bizi zoriontsu bat **ñiñi** ttipari!

**ñir-ñir (orobat ñirñir g.er.) 1 adlag** ñirñirka. Ia ilundua zuen, eta Branfordeko argiak **ñir-ñir** ari ziren. Urrezko ezproiak bota orpoetan; diamantez jositako gandorra kaskoan **ñir-ñir**. Perrette bat-batean altxatu zen, begiak **ñir-ñir**: [...]. Ikusgarri margotutako etxe zurezkoak, plaza baten inguruan pilaturik, eta, goian gailen, katedralaren kanpandorre garala, gurutze urreztatua **ñir-ñir** eguzkipean. Handitzen ari zen, pozik, eguzkitan **ñir-ñir**, dena bikain zebilelakoan, ohitura baketsuko jendea sekula ez zela hain ederki gizendu pentsatzen zuela. Kalean hotza, zerua oskarbi, izarrek **ñir-ñir**, eta mutxurdinek mar-mar.

**2 ñir-ñir egin** Nikelezko zerbaitek **ñir-ñir egin** zuen Baldwinen eskuan. Eta milaka eta milaka ziren haren lepoan, haren beso eta eskuetan, haren gerrian, haren oinetan **ñir-ñir egiten** zuten diamanteak. Elur-maluten ertzek **ñir-ñir egiten** zuten farolen ondotik pasatzean. **Ñir-ñir egin** zuten Perretarren begiek. Begi ilunek **ñir-ñir zegoiten**, han beheko itsaso distiratsua bezala. Begiekin **ñirñir** egiten ikusi nuen, baina ez dakit zer sentitu zuen. Ez nintzen guti harritu, tupustez, Ximurraren auto urdineko keinukariek **ñir-ñir egitean** bide ondoko aparkaleku baterat. Aurre-postuetako suek **ñir-ñir egiten** zuten bizi-bizi.

**ñirñir (orobat ñir-ñir g.er.) 1 iz** dirdira, distira. Eri ikusezin batzuk Mikelen masailen pausatu dira, **ñirñir** bat bezain fereka llaburrean. **Ñirñir** batek postarantz desbiderarazten dizkio begiak: mezuak dauzka. Ellen besaulki malgu batean eserita zegoen, gela luze baten bukaera aldean, non solasen txintxina eta zutargien eta harribitxien **ñirñirra** sumatzen baitziren. Xekearen begi urdinek izarren pareko **ñirñirra** zuten. Pattar edontzi txikiak, ardo baso lodiak [...] denak goiko behera, ipurdia airean, barraren **ñirñirak** haien zurbiltasunean islatzen zirela. Pantailako **ñirñirrak** atzera begiratzera behartu du. Erosek begien **ñirñirrak** xedatzen eta gezien puntak zorrotzen dituen legez, Anterosek soak desbideratzen ditu eta azkonen garratza kamusten. Jaurenearen begietan **ñirñir** bat agertu zen, belusezko bonetaren hegi zabalaren azpitik, Izarren **ñirñir** hotzak zirrara eragin zidan. **Ñirñir** metaliko bat aterarazi dio goizeko eguzkiak ezkutaleku batean aparkatutako Toyota zuritari. Aintzira lokartuak bezalakoak ziren; beiraren baten **ñirñir** iheskorrak olatu baten zilar distira argitzen zuen haien erdian. Neskak, ordea, han irauten zuen, garrezko **ñirñir** bat begietan, dendaren fatxadan jarritako kale argien errenkadaren azpian.

**2** (*hitz elkartuetan bigarren osagai gisa*) Merlenka kaxak, opalo **ñirñirez** beteak. Han ezer ikustekorik ez bazegoen ere, gure hegai bustiaren gaineko argi-**ñirñir** berdea izan ezik. Argi **ñir-ñirrak** bakarrik ikusten genituen herrixkan barrena, eta haran osoan zehar beherantz.

**ñirñirdun izond ñirñirra duena.** Hala, bada, Nottingham-eko dukearen konpainian sartu zen, eta tafetai eta damaskozko soinekoak apailatu zitzaizkion, **ñirñirdunak**, zilar-oihalezkoak eta urre-oihalezkoak, begiztadun kortseak eta kalamuzko ileorde kiribil luzezkoak.

**ñirñirka (orobat ñir-ñirka) adlag** Goian ilargi izoztu eta zahar-zaharra **ñirñirka** ari zen, mendigainak erdizka estalirik. Esango nuke euria ere egin duela, hori erakusten baitute **ñir-ñirka** ikusten ditudan argi distiren islek.

**ñirñirkari izond** Uneoro mudatzen zen mundua, lorez betea, elurrez, argiz, berdez, batzuetan morez, batzuetan kobre-kolore garbiz, beste batzuetan urdinez, eguzkiz, horiz, laranja-kolore **ñirñirkariz**...

**ñirñirtsu izond** Zerbait **ñirñirtsua** han joan zen itzulika eguzkipean.

**ñirñirtu, ñirñir(tu), ñirñirtzen da/du ad.** Lepoko edo bizkarreko oinazeak jasango balitu moduan sorbaldak beheratuta, Joseluren begiek lurreko baldosak zituzten jopuntu, nahiz eta burua geldirik begi-niniek alde batera eta bestera **ñirñirtutako** barreialdiek labezomorroen ehizean aritzearen itxura ematen zioten.

**ñoki iz** batez ere irinez, gurinez, esnez eta arrautzez osaturiko orearekin eginiko bola, labean edo ur irakinetan prestatzen dena. Mendi horren tontorrean badago jendea **ñokiak** eta ravioliak besterik egiten ez duena. Kapoiak **ñoki** eta ravioliekin jaten: halaxe irudikatu gintuen XIV. mendeko Giovanni Boccacciok euskaldunok.

**ñoño izond txepela.** Han, Hollywoodek, gaur egungo Hollywood **ñoñoak**, eginiko zinemak ez zuen inolako arrakastarik izan.

**ñoñokeria iz txepelkeria.** Behin, kanpoko editore batek aitortu zidan asko miresten zuela samurtasuna nola tratatuta zegoen nire istorioetan eta horrek asko poztu ninduen, bihotza errebindikatzeak ez baitu zertan **ñoñokeria** ekarri behar.

**ñoñostiar iz adkor** **ñoñostia**, **ñoñostiarrak** Donostia eta donostiarren desitxuraketa esanguratsua, aski zabaldua. Donostiako **ñoñostiarren** ibilerak eta harat-honatak. *Kromagnon* goitizena jarri zian **ñoñostiar** grazioso alu hura, kasu.

**ñoo (orobat ñooo) interj koño-ren leungarria.** Latza, **ñoo**, ostias. Ez dakit nik, **ñooo**.

**ñu iz** afrikar sabanako antilope handia, ile arrekoa, gorputza, isatsa eta hankak zaldiaren antzekoak dituen (*Connochaetes sp.* eta *Gorgon sp.*). Behin Kewko ehiztari batek begiztatu zuen urrutira bakean zen **ñua**. Iruditzen zitzaidan atsegin izango zuela Afrikako sabanan denboraldi bat egitea eta aholkuak ematea hango elefante-saldoak eta harrapakin diren animaliak -antilopeak eta **ñuak**- kudeatzeko. Nekoraren begiak **ñu** hilak baino hilago zeuden. Antzeko galera gertatzeaz da Amazonasko eta Mekongeko siluruekin, Gangesko izurdeekin eta Mara ibaiko **ñu** urdinekin. Coventry edo Birmingham-eko fundizioetan kutxa beteka moztzen ziren ikurrak; alde batean Victoria gozakaitzaren burua -regina et emperatrix-, eta bestean **ñua** edo ibisa jauzika.